



## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ETA BAVIERAKO ESTATU LIBREAK ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA**

EUSKADiko Autonomia Erkidegoak, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusi Maria Angeles ELORZA andreak ordezkaturata,

BAVIERAKo Estatu Libreak, Europako Gaietarako eta Nazioarteko Harremanetarako ministro Beate MERK andreak ordezkaturata,

Aurrerantzean "aldeak" deituko zaie,

### **KONTUAN HARTUTA**

#### **Bi aldeek**

Orain arteko harremanei eutsi eta harreman horiek sendotzeko interesa dutela,

Askatasunaren, demokraziaren, justiziaren eta elkartasunaren balioak partekatzen dituztela,

Elkarrenganako konfiantzan oinarrituta, adiskidetasun eta lankidetzazko loturak indartu nahi dituztela,

Bi aldeek 1994an izenpetutako adierazpenean oinarrituta, orain arte izandako lankidetzaren emaitzak oso egokiak izan direla uste dutela,

Bi gizarteak eta bi gizarteon ahalmenak hobeto ezagututa eta bi gizarteon artean denboran zehar ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloetan ezarri diren harremanen bitartez, harreman horiei eutsi eta sendotzeko interesa dutela

### **ADIERAZTEN DUTE**

Asmoa dutela alde bien arteko harremanetan sakondu eta interes komunekoz zenbait arlotan lankidetzan aritzeko.

#### **Lehenik**

Hasteko, interes komunekoz alor hauetan bilduko da lankidetzaz:

- Ikerketa, Garapen eta berrikuntzan
- Industria Politikan eta horren sektore nabarmenetan, hala nola, automobilgintzan, manufakturan edota makina-herremintan
- Ingurumen eta Energiaren
- Lanbide Heziketan
- Barne Segurtasunean eta polizia-lankidetzan

Bi aldeek elkarrekin balioetsiko dute interes komuneko beste zenbait arlotara ere zabaltzea lankidetzan.

### **Bigarrenik**

Elkar Ulertzeko Memorandum honek ez die parte hartzaileei bestelako finantza konpromisorik ezartzen, alde bakoitzak, hala badagokio, idatziz eta berezita onartu ditzakeenak ez badira.

Lankidetzan hau alde bakoitzaren aurrekontu baliabideen eta nahitaez egin beharreko zuzapideen menpe egongo da.

Beharrezkoa balitz, berariazko proiektuetan oinarritutako lan taldeak sortuko lirateke.

Etengabeko harremanetan oinarrituko da lankidetzan. Beharrezkoa denean, berariazko proiektuetan oinarritutako lan taldeak sortuko dira. Proiektua aurkezten duen aldea arduratuko da proiektu horren antolaketaren zuzendaritza eta buruzagitzan.

Lankidetzan gauzatzeko ekimenen etengabeko jarraipena egingo da eta egoki diren neurri eta programak abiaraziko dira horretarako.

### **Hirugarrenik**

Erakunde gaietarako eta Europar Batasunarekiko gaietarako mintzakide gisa, EUSKADiko Autonomia Erkidegoaren aldetik Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta BAVIERAko Estatu Librearen aldetik Bayerische Staatskanzlei-k burutuko dituzte Elkar ulertzeko Memorandum honen koordinazio eta jarraipen zereginak.

### **Laugarrenik**


Lankidetzan tresna hau elkarrekin adostuta baino ezin izango da aldatu, eta idatziz adierazi behar da hori. Aldaketak jasotzen dituzten agiriak eranskin gisa gehituko zaizkio Elkar ulertzeko Memorandum honi, eta bere zati izango dira.

Elkar Ulertzeko Memorandum honek 2 urteko indarraldia izango du izenpetzen denetik aurrera.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau alde biek adostuta amaitu ahal izango da, edota alde batek bukatu ahal izango du besteari jakinarazpen idatzia eginez gero; gutxienez hiru hilabete lehenago egin behar da jakinarazpen hori. Horrelakoetan, egiteko bidean edo hirugarrenekin konprometituta dauden jarduerak bukatzera behartuta egongo dira aldeak.

Munich hirian izenpetuta, 2014ko uztailaren 2an, bi ale, gaztelaniaz, euskaraz eta alemanez, hiru testuek jatorrizkotasun bera izanik.

EUSKO JAURLARITZAREN IZENEAN



María Angeles ELORZA

Kanpo Harremanetarako Idazkari  
Nagusia

BAVIERAKO GOBERNUAREN  
IZENEAN



Beate MERK

Europako Gaietarako eta Nazioarteko  
Harremanetarako ministro